

HONDARTZA BIZI PROGRAMAREN INFORMAZIOA

1.- SARRERA.

Gehilan 2000 garapen sozio-ekonomikoarekin konprometituta dagoen aholkularitza da. Gure helburu nagusia langilearen enplegarritasuna eta enpresaren lehia hobetzen dituzten proiektuak proposatzea eta lantzea da.

Gure erronka nagusienetako bat, langabezia egoeran aurkitzen diren pertsoneri laguntzea da, aspektu guztiak Orientazio Profesionaletik eta Gaitasunen Formakuntzatik landuz, lan eskaintzen bilaketa aktiboa sostengatzen dugun bitartean.

2.- PROGRAMAREN HELBURUA

- Irisgarritasun zailtasunak dituzten pertsoneri La Arena hondartzan zerbitzuak eskaintzea.
- Mugikortasun urria duten pertsoneri zuzendutako zerbitzua martxan jartzea.

3.- PROGRAMAREN EZAUGARRIAK

- Hondartza Bizi Zerbitzuko jardueren diseinua eta martxan jartzea.
- Zerbitzu hauek martxan jartzeko 6 begiraleren kontratazioa, uztailean, abuztuan eta irailean, hain zuzen ere, 2017/06/19tik 2017/09/19ra, lanaldi erdian.

4.- KONTRATUAK, ZEREGINAK ETA ORDAINKETAK.

Hasiera batean lanaldi partzialeko 6 kontratu egingo dira, 2017/06/19tik 2017/09/19ra.

Kontratutako pertsonak burutuko dituzten zereginak, hala nola, ondorengoak izango dira:

⊗ Elbarrituen begirale lanak

- Egunero plataforma egokitzea eta balizatzea
- Hondartza Bizi zerbitzua kudeatzea
- Jendaurreko arreta Hondartza Bizi plataforman.
- Makuluen mailegua.

- Pertsona erabiltzaileei itsasoko bainuan aulki anfibioarekin laguntzea.
- Zerbitzua erabili ostean, laguntzaileei, zaintzaileei eta erabiltzaileei dutxan eta aldageletan laguntzea.
- Lekualdatzeetarako beldar-ibilgailua erabiltzea.
- Zerbitzura hurbiltzen diren elkarteentzat eta pertsonentzat jarduerak (ariketak, gimnasia...) prestatzea.
- Zerbitzuaren hedaketarako hirugarren adineko pertsonekin, egoitzekin... kontaktatzea.
- Bidaideak-ekin kontaktatzea, beraiek adostu dituzten garraioak eta zentruen bisitak kudeatzeko.
- Egunero arreta eskaintzen zaien erabiltzaileen erregistroa.
- Txostena
- Programaren arduradunarekin koordinazioa.

Langilegoa aldi baterako kontratatua izango da, "aldi baterako obra edo zerbitzu jakineko kontratu" motaren bidez. Honez gain, hileko soldata gordina "E.A.E.ko Gizarte Ekimenezko Ikastetxeen Hitzarmen Kolektiboa – Irakaskuntza Espezializatua"ren (Hitzarmenaren kodearen zenbakia 8602645) bidez, burututako lan postuaren eta lanbidearen kategoriaren arabera legalki ezarritakoak.

Kontratuek frogaldia izango dute.

Eskaintako lanpostuak ondorengoak dira: 6 Begirale.

- Lanpostua: Begirale.
- Lanbide kategoria: Begiralea.
- Ezarritako hitzarmena: "E.A.E.ko Gizarte Ekimenezko Ikastetxeen Hitzarmen Kolektiboa – Irakaskuntza Espezializatua"
- Iraupena: 2017/06/19tik 2017/09/19ra. Dagozkien oporrak denbora aipatutako denbora tartearen barnean daude.
- Kontratu mota: Aldi baterako obra edo zerbitzu jakineko kontratua.
- Lanaldia: %63,15
- Frogaldia: Hilabete bat.
- Lanaldi osoari dagokion urteko soldata gordinaren hurbilpena: 18.018,60 €
- Lanpostuen zenbakia: 6

-Zerbitzuaren irekitze ordua astelehenetik ostiralera 10etatik 19etara izango da. Zerbitzua itxita egongo da 14:00etatik 15:00etara.

- Txandaka lan egingo da.

- Atsedeen eguna lan egutegian ezarriko dira.

- Jaiegunetan lan egingo da.

- Lan egutegia enpresa kontratatzaileak ezarriko du eta lehen lan egunean emango du.

5.- PARTE HARTZAILEEN AUKERAKETARAKO BALORAZIO BATZORDEA.

Gehilan 2000ko teknikariez osatutako Balorazio Batzordean burutuko du hautaketa. Gehilan 2000 udaletxe eta erakunde publikoetako enplegu programak abiarazten espezializatutako enpresa da.

Gehilan 2000ak dokumentu honetan zehazten den hautapen prozesua ezarriko du. Aurkezten diren eskarrietatik eskatzen den profila betetzen dutenek aurkeztutako dokumentazioa neurtuko da oinarri hauetan ezarritako irizpideen arabera.

Prozesuaren garapen egokirako, sortzen diren zalantzak ebazteko eta hartu beharreko akordioak hartzeko gaitasuna batzordeak izango du. Beharrezkoa den kasuan, behin hautagaiek luzatutako dokumentazioa aztertu ostean, akatsak eta/edo kexak konpontzeko epe bat ematea baloratuko da.

6.- HAUTAKETA PROZESUA

BETEBEHARRAK:

- Espainiako herritartasuna izatea, Europar Batasuneko lurraldeetako herritarra izatea, eta Europako Erkidegokoa ez den atzerriko herritarra bada legezko lan eta bizileku baimena izatea Espainian.
- Hamazortzi urte beteta izatea, eta, inolaz ere , nahitaezko erretiroko gehieneko adina ez gainditzea.
- Langabea izatea, erabateko prestutasunarekin, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda izatea, bai eskabidea aurkeztean bai kontratazio uanean.
- Zierbenan erroldatuta egotea, 2016ko ekainaren 15a baino lehen.
- Gehilan 2000ren webgunean izena emanda egotea: www.gehilan2000.com / empleo / introducir CV

Hautaketa prozesuak lehiaketa fase bat eta elkarrizketa fase bat izango du.

A) LEHIAKETA FASEA:

Hautagai bakoitzak luzatutako dokumentazioa ondorengo irizpideen arabera baloratuko da:

- 1.- **Egoera sozio-laborala:** gehienez 15 puntu.
- 2.- **Euskararen ezagutza:** 4 puntu gehienez.
- 3.- **Formakuntza, praktikak, esperientzia, udal programak:** 32 puntu gehienez.

PUNTUAZIO IRIZPIDEAK

“EGOERA SOZIO-LABORALA”ren ATALA

- 1.- **Prestazioak kobratzea:** 6 puntu gehienez

- a) DBEren titularra izatea edo onuraduna izatea: 6 puntu.
- b) GLLren (Gizarte Larrialdiko Laguntza) onuraduna izatea: 6 puntu
- c) Udaleko laguntzaren jasotzailea izatea (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bidez kudeatua): 6 puntu.

2.- Zierbenako Gizarte Ongizate sailak ebaluatutako beharrizan egoera: gehienez 5 puntu

- Beharrizan altua adierazten duen sailaren txostena:5 puntu.
- Erdi mailako beharrizana adierazten duen sailaren txostena:3 puntu.
- Beharrizan baxua adierazten duen sailaren txostena:2 puntu.
- Beharrizan berezik ez dagoela adierazten duen sailaren txostena:.....0 puntu.

Oharra: Beharrizana adierazten duen txostena, Zierbenako Udaleko Gizarte Ongizate sailak luzatzen duen dokumentua da. Beronek, hautagaiaren beharrizan maila adierazten du eta Zierbenako Gizarte Ongizate sailak esleipendun erakundeari emango dio (Erakunde kontratatzailearen eta Gizarte Ongizate sailaren arteko dokumentu pribatua izango da). Txosten honen faltak 0 punturen lorpena dakar.

3.- Langabezia antzintasuna: gehienez 4 puntu.

- Langabeziako antzintasuna ≥ 36 hilabete..... 4 puntu.
- Langabeziako antzintasuna ≥ 24 eta < 36 hilabete.....3 puntu.
- Langabeziako antzintasuna ≥ 12 eta < 24 hilabete..... 2 puntu.
- Langabeziako antzintasuna < 12 hilabete.....1 puntu.

Oharra: Langabeziako denbora zenbatzeko, Lanbidek igorritako izan-emate aldien ziurtagirian zehazten den data hartuko da kontuan.

"EUSKARAREN EZAGUTZA" ATALA

4.- Euskararen ezagutza: 4 puntu gehienez

- a) Euskara-ezagutza egiaztatzen duen titulazio ofizialaren arabera, honako puntu hauek emango dira:

- HAEE-IVAPek emandako 3. hizkuntza-eskakizuna; HABEk emandako 3. mailaren frogagiria; Osakidetzako 3. hizkuntza-eskakizuna; Ertzaintzako 2. hizkuntza-eskakizuna, Euskararen Gaitasun Agiria (EGA); Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) Nafarroakoa; Euskaltzaindiaren D tituluaren frogagiria; Irakasleen 2. hizkuntza-eskakizuna; EAeko eta Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako Gaitasun -Ziurtagiria edo 5. ikastaroarena, bai eta Madrilgo Hizkuntza Ofizialarena ere (ikasketa plan zaharra); Gaitasun Mailaren Ziurtagiria, EAeko Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako menderatze maila operatibo eta eraginkorra (ikasketa-plan berria).....4 puntu
- HAEE-IVAPek emandako 2. hizkuntza-eskakizuna, HABEk emandako 2. mailaren frogagiria, Osakidetzako 2. hizkuntza-eskakizuna, ; Ertzaintzako 1. hizkuntza-eskakizuna, Irakasleen 1. hizkuntza-eskakizuna, EAeko eta Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako 4. ikastaroaren frogagiria (ikasketa plan zaharra), EAeko eta Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako maila aurreratuaren frogagiria (ikasketa-plan berria).....3 puntu.
- HAEE-IVAPek emandako 1. hizkuntza-eskakizuna, HABEk emandako 1. mailaren frogagiria, Osakidetzako 1. hizkuntza-eskakizuna, EAeko eta Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako 3. ikastaroaren frogagiria (ikasketa plan zaharra), EAeko eta Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialek emaniko tarteko mailaren ziurtagiria (ikasketa-plan berria)..... puntu 1.
- Batxilergoko ikasketak edo maila goragokoak euskaraz ikasita izatea:4 puntu.

“FORMAKUNTZA, ESPERIENTZIA ETA UDAL PROGRAMAK” ATALA

5.- Programaren arabeko formakuntza maila: 10 puntu gehienez

OLH/EMHZ Laguntzaile Klinikoaren, Arreta Soziosanitarioaren titulua, GMHZ – Animazio Soziokulturaleko, Gizarteratzeko titulua edo Profesionaltasun ziurtagiria Arreta Soziosanitarioan.....10 puntu

Honez gain, ondorengo Unibertsitate tituluak ere baloratuko dira: Erizaintza, Medikuntza, Psikologia, Gizarte Langilea, Gizarte Hezkuntza, Fisioterapia...8 puntu

Atal honetan aipatutako titulazioak gaur egun burutzen ari badira eta bukatzeko badaude 7 punturekin puntuatuko dira.

6.- Programarekin lotura duen frogatutako formakuntza osagarria izatea: 10 puntu gehienez.

- Arlo sanitarioko, lehen laguntzako edo aisialdiko 100 orduko edo gehiagoko ikastaroak2 puntu ikastaro bakoitzeko

- Arlo sanitarioko, lehen laguntzako edo aisialdiko 20 ordu edo gehiagoko eta 100 ordu baino gutxiagoko ikastaroakpuntu bat ikastaroko
- Arlo sanitarioko edo aisialdiko 20 ordu baino gutxiagoko ikastaroak0,5 puntu ikastaroko.

* Orduak zehazten ez diren tituluek eta orain egiten dauden formakuntzen ez dute balio.

7.- Esparruarekin lotutako esperientzia boluntariotzan eta praktikak:

2 Puntu bat gehienez.

-Ziurtagiri bakoitzeko puntu bat.

* Praktiketean edo boluntariotzan egindako ordu kopurua zehazten duten ziurtagiriak onartuko dira soilik.

8.- Programarekin lotutako lan esperientzia:

5 puntu gehienez

- Begirale lanetan edo arlo sanitarioan bi hilabeteko edo gehiagoko esperientzia puntu bat 2 hilabete bakoitzeko 5 puntu gehienez

* Bizitza laborala aurkeztu behar da eta bi hilabeteko kontratuak 60 eguneko kontratu lez ulertzen dira.

9.- Zierbenako Udaletik edo Udalerriko Enplegu Programetan beste erakunde batzuetatik (Gehilan 2000, Fundación Integrando, Efficient, Behargintzak, Alaiki, EDE Fundazioa, Suspergintza, Bidaideak, Sozietate Publikoak, Toki Erakunde Autonomoak, Udalei lotutako erakundeak, irabaz asmorik gabeko elkarteak...) 2015tik hilabete baino gehiago kontratatuta ez egon izana.

.....3 puntu.

* Hilabete bat 30 egun direla ulertzen da.

B) ELKARRIZKETA FASEA

Elkarrizketa fasean lehiaketa fasea 6 punturekin gainditzen dutenek soilik parte hartu ahalko dute.

(Gehilan 2000 enpresak aurkeztutako eskabideak nahikoa ez badira 6 pertsona hautatu eta 4 pertsona erreserban izateko zerrenda osatzeko, puntuazioaren gutxieneko muga jaitsi ahalko du).

Elkarrizketa 0tik 5era baloratua izango da.

Proba honen egitura laburra izango da, 15 minutu inguru, eta erdi egituratutako eta zuzendutako izaera izango du. Elkarrizketa guztietan galdera sorta bat erabiliko dira, tarte bat utziz hautagaiekiko interakzioan agertutako alderdi garrantzitsuenak aztertzeko.

Elkarrizketa eskaintako lanposturako pertsonaren egokitasuna zehaztean zentratuko da. Honetarako, ondorengo irizpideak eta bere haztapen elkartua izango du kontuan:

- | | |
|---|------------|
| ✓ Erantzukizun pertsonala, barneratzea eta araura egokitzea | 0,5 puntu. |
| ✓ Aurre egiteko era asertiboa | 1 puntu |
| ✓ Beste baliabide batzuk eta gaitasun sozialak
(enpatia, komunikazioa interpertsonala, rapport, gatazkaren kudeaketa, negoziazioa) | 1 puntu |
| ✓ Enpleguarekiko jarrera orokorra eta lanpostuarekiko interes berezia | 1 puntu |
| ✓ Egonkortasun emozionala eta autokontrola | 1 puntu |
| ✓ Inguruaren eta lanpostuaren ezagutza: udalerrria, eginkizunak, eguneroko arazoak | 0,5 puntu |

Aurkeztutako pertsona bakoitzaren azken puntuazioa, lehiaketa faseko eta elkarrizketa faseko puntuazioen batura izango da.

Puntuazioan berdinketa gertatuz gero, lehentasuna esparru honetan lan esperientzia gehien duten pertsonak izango dute. Berdinketak jarraitzen bada, lehentasuna langabezia denbora gehien daraman hautagaiak izango du.

Programan unitate familiarreko pertsona batek baino gehiagok inolaz ere ezingo dute parte hartu eta lan egin, baldin eta ez badago enplegu eskatzaile gehiago eta lanpostua estaltzeko geratzen bada.

7.-DOKUMENTAZIOA

DOKUMENTAZIOA

- NAN edo AIZren kopia eta, behar denean, lan eta bizileku baimenaren kopia.
- Lanbide Euskal Orientazio Zerbitzuan izaniko inskripzio aldiaren txosten eguneratua
Oharra: Txosten hori Lanbideren web orrialdetik lor daiteke: www.lanbide.euskadi.eus "Nire Lanbidenet" atalean, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emana duten erabiltzaile guztiek izan behar duten erabiltzailea eta Gakoa sartuta. Txosten hori Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren bulegoetan ere lor daiteke.
- Curriculum Vitae gaurkotua, NAN neurriko argazkiarekin.
- Zierbenako Udalak igorritako banakako errolda-agiri eguneratua
- Gehilan 2000ren webgunean izena ematea: www.gehilan2000.com / empleo / introducir CV.

(BORONDATEZKO DOKUMENTAZIOA)

- Laguntzak edo prestazioak jasotzen direla egiaztatzen duten dokumentuak.(DBE, GLL, edo Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bidez kudeatutako laguntzak).
- Euskararen ezagutza maila egiaztatzea edo Euskaraz burututako ikasketen titulua.
- Programarekin lotura duen formakuntza egiaztatzea. (ziurtagirien eta tituluaren fotokopiak).
- Arloko esperientzia boluntariotzan eta/ edo praktikan. Jarduera, betebeharrak, eta orduak adierazten dituen erakunde arduradunak luzatutako ziurtagiri bidez egiaztatuko da.
- Arloko lan esperientzia. Arloko esperientzia egiaztatzen duen enpresako kontratuen edo ziurtagirien fotokopien bidez egiaztatuko da.
- Aurreko programetan lan egin eza egiaztatzen duen lan-bizitza ziurtagiria aurkeztu ahal da.

OHARRA: Hautaketa Prozesu honetan parte hartzeko beharrezkoa da, Gehilan 2000ren webgunean izena ematea: www.gehilan2000.com / empleo / introducir CV.

8.- EPEAK ETA DOKUMENTUEN AURKEZPENAK.

Enplegu Programan parte hartu nahi dutenek, eskatutako derrigorrezko dokumentazioa Zierbenako Kultur Etxean ezarritako epearen barnean entregatu beharko dute (Gehilan 2000ri zuzenduta) Gainera, lehiaketa fasean puntu gehiago lortzeko helburuarekin, modu boluntarioan oinarritan jasotako balorazio irizpideak egiaztatzeko baliagarria den dokumentazioa ere entregatu daiteke.

Beharrezkoa jotzen den kasuan, egoera pertsonal eta lan egoeren balorazio egokirako Balorazio Batzordeak hautagai bakoitzari dokumentazio gehigarria eska dakioke eta/edo hautagaien egoera sozio-ekonomikoa zehazteko beharrezkotzat jotzen dituen txostenak eska ditzake.

Enplegu Programarako hautagai bakoitzaren hautaketa prozesuaren oinarriak webgune hauetan egongo dira eskuragarri: Zierbenako Udala www.zierbena.net eta Gehilan 2000 S.L. www.gehilan2000.com .

Modu presentzian Zierbenako Kultur Etxeko Bulegoetan (San Roman Auzoa, 6B. 48508. Zierbena) ere jaso daitezke edo Gehilan 2000ren bulegoetan (San Juan auzoa 2 – Muskiz), asteleheneetik ostiralera goizeko 9:00etatik 15:00etara bitartean.

ESKAERAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

Enplegu programan parte hartzeko dokumentazioa ezarritako epean (**2017ko maiatzaren 18tik maiatzaren 26ko 14:00ak arte**) entregatu beharko da, Zierbenako Kultur Etxean (Gehilan 2000ri zuzenduta):

Kultur Etxea
San Roman Auzoa 6B
48508 - Zierbena
Telefonoa.: 94 636 60 07
Herritarren arreta ordutegia: 9:00etatik 14:00etara

Gehillan 2000ren emaila informazioa jasotzeko: gehilan@gehilan2000.com
Gehilan 2000ren telefono zenbakia – 94 6708194

9.- AUKERATUEN ZERRENDA.

2017ko maiatzaren 30an hautapen prozesutik onartutako eta baztertutako pertsonen zerrenda argitaratuko da. Aurre hautatutako pertsonen zerrenda horretan azaltzen ez diren pertsonak zerrendatik kanporatuztat hartuko dira, eskatutako baldintzak ez betetzeagatik eta/edo eskatutako dokumentazioa epean ez aurkezteagatik.

Ondoren, balorazio batzordeak hautaketa prozesuaren lehen fasean aurkeztutakoen merituak puntuatuko ditu. **Gutxienez 6 puntu izatea beharrezkoa izango da hautaketa prozesuko azken fasera pasatzeko, hau da, egituratutako elkarrizketa fasera.**

2017ko ekainaren 2an elkarrizketan parte hartuko duten pertsonen zerrenda argitaratuko da, hau da, gutxieneko 6 puntuak gainditu dituzten pertsonen zerrenda.

Egun horretan bertan zehaztuko dira **ekainaren 5 eta 6an** burutuko diren elkarrizketak.

Ekainaren 7an aukeratutakoen eta erreserban dauden pertsonen behin-behineko zerrenda argitaratuko da.

Ekainaren 9an aukeratutakoen eta erreserban dauden pertsonen behin-betiko zerrenda argitaratuko da.

Aukeratutakoek **ekainaren 16 eta 17an** 9:30etatik 14:00etara **formakuntza ikastaroa** burutuko dute.

10.- OINARRIAK ONARTZEA.

Hautapen-prozesuan parte hartzeak berekin ekarriko du espresuki oinarri hauen onarpena. Gehilan 2000ak oinarrietan aipatuta izan ez den edozein alderdi erregulatzeko ahalmena izango du, baita beraien edukia interpretatzeko ere.